

KOSTUEN EGITURA

Gure proiektuak, hainbat kostu mota ezberdin ditu. Lehenik eta behin kostu finko batzuk ditu: Makinak martxan jartzeko eta argiarentzako behar dugun elektrizitatea, ura, langileei ordaindu beharreko soldata...Beste aldetik, pabiloiaren alokairua ez genuke ordaindu beharko, Uxueren osabak, dohainik utzi digulako.

Bigarrenik, kostu aldakorak daude: garrantzitsuena, produktua sortzeko behar ditugun makinak erostea, gure produktua sortzeko behar ditugun piezak ere erosi beharko ditugu.

Horretaz gain kostu zuzenak eta zeharkakoak ditugu, zuzenak ekoizpena zein den aldatzen direnak, hau da, gure kasuan, produktuak egiteko behar ditugun lehengaiak, hau da, produktuak izango dituen piezak, ekoizpena handiagoa bada gehiago beharko ditugulako, eta txikiagoa bada berriz gutxiago.

Bestetik, zeharkako kostuak, ez dira produktu bakar baten gastuak, beraz ez dira aldatzen ekoizpen mailaren arabera, hauek; produktuak sortzeko makinak izango lirateke, berdin baitu ekoizpen mailak, baita ere, langileei ordaindu beharreko soldata, ekoizten den produktu kopurua edozein izanda ere, langileen soldata ez delako aldatzen. Elektrizitatearekin ere gauza bera gertatzen da, eta baita produktu bat konpondu beharra izanez gero, matxura duen produktu hau gure tailerrera eramateko furgoneta bat, hau da, enpresarentzako furgoneta bat, gure ekoizpen mailak ez du gastu honetan eraginik.

Hasieran gure eskala ekonomia txikia izango zen, proiektua berria delako eta ezagutu arazteak bere denbora beharko duelako, baina aurrera doan heinean handitzen joango da.